

Kolonbiako irakasle batzuk Zerainen bisitan



HITZA

Otsailaren 11n, asteazken arratsaldean, Kolonbiako irakasle talde bat etorri zen gure eskola txikia ikustera. Guri galderak egin zizkiguten. Batzuk gelan Kontxirekin zeuden bitartean, Kolonbiako Karlos eta Amelia izeneko bi irakaslek Kolonbiako lau abesti erakutsi zizkiguten: sol-solecito, la arañita, el zapato de goma eta luna-lunera.

Bisita oso atsegina izan zen.

Herri Eskolako ikasleak



Bolateak: XVI. Endika Alustiza memoriala eta Goierriko txapelketa

Martxoaren 1en, igandea, Endika Alustiza zenaren oroimenezko XVI. memoriala jokatuko da Liztormendi bolatokian. Goizez eta arratsaldez, Gipuzkoako bolari onenak lehiatuko dira.

Aurreko egunean, otsailaren 28an, Goierriko txapelketa jokatuko da Liztormendi bolatokian. Eskualdeko txapela janztea egongo da jokoan.

Santa Agedan bildutako dirua Peru aldera bidaliko da aurten

Santa Ageda bezperan, ohitura zaharrari jarraituz, ume, gazte eta helduz osatutako herritar talde bat etxez etxe ibili zen kantuan eta eskean. Otsailaren 4a lan-eguna izanik, arratsaldean berandu xamar irten ziren eta ondorioz ezin izan ziren Aizpe eta Barbari aldera joan. Hala ere, diru asko bildu zen: 1.333€. Urtero bezala, jasotako dirua beharrean daudenei laguntzeko erabiliko da. Aurten Peruko misio batera bidaliko da laguntza han bizi eta lan egiten duen Untsulategiko Julitaren ahizparen bitartez.



Inauteriak ospatzeko gogoz daude haurrak



Badatoz inauteriak negu beltza-
ren erdian, eta Zeraingo eskola-
ko haurrak ospatzeko desiatzen
daude: mozorroak, kankak, jolasak,
antzerkia... denetik izango da Zerain
aldean.

Otsailaren 19an, ostegunean,
eskolako ikasleek POEMEN JAIAL-
DIA antzezlanaren eskainiko dute eliz
atarian arratsaldeko 5etan. Herriko
txikiak antzezle eta artista bikainak
direla erakutsiko dute zeraindarron
aurrean. Herritar denok gonbidatuta
zaudete.

Hurrengo egunean, otsailaren 20an,
Segurako eskolakoekin batera inaute-
riak ospatzera jaitsiko dira zeraindar
gaztetxoak. Baina Seguran egingo
duten dantzaldiaren entsaio nagusia,
eguerdiko 12:15enean egingo dute
Zeraingo plazan.

Otsailaren 23an, astelehen arratsal-
dean, mozorro festa izango da
Zeraingo plazan. Jolas eta dantzen
arte, arratsaldeko 5ak aldera
Guraso elkarteak merienda emango
du gainera. Anima zaitetz mozorrotu
eta festan parte hartzera!

Martxoaren 1eko hauteskundeetarako hainbat ohar

Eusko Autonomia Erkidegoko Lege-
biltzarrerako hauteskundeak izango
dira martxoaren 1en. Ohiko orduetan
eta ohi bezala udaletxean egongo
dira hautetsontziak Zerainen. Aurten
mahaian egotea ondorengo herritar
hauei egokitu zaie: Alberto Alberdi,
Fidel Zapiain eta Maria Isabel
Izagirre (titularrak). Mainer
Berasategi, Josune Bengoetxea, Jesus
Ezeizabarrena, Maria Jesus
Aizpeolea, Beñat Zubeldia eta Pio
Imaz (ordezkoak).

Gogoratu botoa emateko behar-
rezkoa dela identifikazio agiriren
bat aurkeztea, mahaikideek egiazta
dezaten zentsuan gure izena agertzen
dela.

Mugikortasunaren estudioa aurkeztea

Goiekik ikerketa bat egin du eskual-
deko biztanleen mugikortasun ohitu-
rak zeintzuk diren ezagutzeko.
Emaitzak otsailaren 24an iluntzeko
7etan aurkeztuko dituzte udaletxean.
Partehartzea irekia izango da.

Tute eta mus txapelak berriak



Urtarrilaren 31n jokatu zen Liztormendiko urteko tute txapelketa. Hamabost bikotek parte hartu zuten eta azkenean, garaileak bi herritar izan genituen: Belen Abendibar eta Maribel Alustiza. Finalean Segurako Joxe Mari Gerriko eta Julian Imazi irabazi zieten.



Otsailaren 14an jokatu zen Liztormendiko mus txapelketa ere herritarrak nagusitu ziren. 22 bikoteraren artean Jabier eta Iker Aizpeolea osaba-ilobek jantzi zuten txapela. Finalean aurkari bi neska zegamar izan zituzten: Iratxe Ormazabal (Otzako Axunen alaba) eta Nagore Arrieta

Txirringilloa

Bazeraman denbora Elenak, hila-beteak esango nuke, hitz honi heldu behar geniola esanez. Baita nik galdetu ere: zer da *txirringillo* delako hori? "Zer izango da ba - Elenak bueltan- negu gorrian teilatutik behera zintzilik egoten den izotz puska, ziri modukoa". Orduan ententitu nuen, zertaz ari zen. Baietz, helduko geniola. Eta iritsi zaio txanda.

Informazio zehatza ekarri dit gaur Elenak, esku hutsik hasi behar ez izateko. Hona bere azalpena: ur tantak erortzean, hotzak izozturik, *txirringilloak* sortzen dira. Izotz puska zintzilik gelditzen da, teilatutik batez ere. Ez hor bakarrik, ordea. Ur-negarra dagoen edozein lekutan, berez sortzen da *txirringilloa*. Erreka-bazterretan, horregatik, ugari izaten dira *txirringilloak* hotz handia egiten duenean. Teilatuetan horrelako asko izaten zen lehen. Orain, kanaloiak jartzen direnetik, gutxiago ikusten da halakorik.

Garbi dago, beraz, Elena zer esaten ari den. Galdetu dugu herrian, berak eta biok, jendeak (adin batetik gorako jendeak) izotz-puska horiei nola esaten dien. Erantzun berbera eman digute denek: *txirringilloak*. Den-denek ez, halere: Ariztizabalgo Juanitak *txirringilloiak* esaten die horiei, nahiz eta beste forma ere eza-guna duen.

Zer ote da *txirringillo* hitz horren iturria? Zer dio horretaz OEH hiztegiak? Sorpresa hartu dut. *Txirringillo* hitzaz ez du hiztegiak esplikazio handirik ematen. Beste hitz hau ikusteko esaten du: *zirringilu*. Beste hitz horretara jo dugu, beraz, esplikazio bila. Alferrik, ordea. Batez ere txori baten izena omen da *zirringilu* hori: gaztelaniazko *abión*, *vencejo*, *golondrina*. Hots, enara mota bat. Badakar beste esplikaziorik ere hiztegiak, *zirringilu* horretaz: *desaliñado*; *persona descontentadiza*, *murriática*, *tretosa*.

Urruti, oso urruti garamatza esplikazio-bide horrek. Ez dugu hortik atarramentu onik. Izotz puska da gure gaurko kontua, ez *persona desaliñada*; are gutxiago *golondrina*. Huts



San Blas ermitako teilatutik zintzilik txirringillo galantak egon dira azken elurtean.

egin digu beraz, oraingoan, hiztegiak. Ematen du horrek ere zer pentsa. Herrian (eta ez Zerainen bakarrik) orain puntura arte bizi-bizirik egon den hitza, adiera jakinekoa, hiztegian jaso gabe dago. Hitzezko jardun arruntetik idatzizkora dagoen saltoa, jauzia, uste baino handiagoa da antza.

Salto hori ez da erabatekoa, ordea. Zeraingo *txirringillo* hori, bere adiera horretan, ez da hiztegian ageri. Baina beste hau bai: *txirrio*, *txirri*, *txirra*. Formaz eta adieraz, ez dabil *txirringillo*-tik oso urruti. Ikusi, bestela, bere bi adiera nagusiak: 1.- *chorro (de líquido)*; 2.- *cerrión, hielo pendiente de las canales*. Horrela jaso zuen Larramendik, orain dela 264 urte: *txirrio*, *jela-txirrio* eta *jela-txirria*.

Egia da aldea dagoela *txirri(o)*-tik *txirringillo*-ra. Ez erabatekoa, ordea. Lehenengotik eratorria dirudi bigarrenak. *Leiho*-tik *leihatilla* bezala, edo *suge*-tik *sugandilla* bezala, litekeena da *txirri(o)*-tik *txirringillo* etortzea. Gauza segurua ez da, baina egiantza badu.

Hitz hori ere galtzen ari al da Zerainen? Bistan da baietz: zerbaitegatik jaso du Elenak. Oraingoan ezin esango dugu, ordea, gizarte-berrikuntzak ofizio eta tresna asko alde batera uzten dituela, eta tresna-ofizio zaharkitu horiek azaltzeko hitzak ere bazterrera gelditzen ari direnik. Lehen bezalaxe izozten da ura, orain

ere, 0 graduren jira-bueltan. Oraingoan ezin esan liteke, beraz, aldaketa teknologikoaren eraginak baztertu duenik hitza. Ezin halakorik esan liteke, lehen begiratuan behintzat. Zorrotzago miatuz, ordea, agian bai. Horra nola: oraingo ur-hodiek eta kanaloiek lehengo tutu zaharrek baino osoago, beteago eta garbiago biltzen dute, hainbat kasutan, teilatutik edo mendi-magaletik datorren ur-txirripa, txirria edo dena delakoa. Eta jakina: ondo biltzen eta lurrazpiko sarera bideratzen duten neurrian, ur-txirrio horiek jela-puska moduan teilatutik zintzilik gelditzeko (eta guk handik zintzilik ikusteko) aukera galtzen ari da. Ez da harriztekoa, horregatik, 40 urtetik beherako hainbat zeraindarrek, eta 20 urtetik beherako gehienek, *txirringilloa* zer den ez jakitea. Eskola-ume gazteei galdetua izan behar die irakasleak, orain dela gutxi, teilatutik behera zintzilik ikusten diren jela-puska horiei nola esaten zaien. Baita eskola-umeek berehala erantzun: *estalaktitak*. Ematen du horrek ere zer pentsa. Eman behar liguke, behintzat. Hiztun gazteen hitz-altxorra asko ari da aldatzen, hitz-kopuruz, hitz horien osakeraz, elikadura-iturriz eta barne-harremenez. Besterik da hori, ordea, eta utz dezagun gaurkoz bere horretan.

Mikel Zalbide eta Elena Mendizabal



Xagu-txoko



Babesetik

URTARRILA	al	ar	az	og	or	lr	ig
				1	2	3	4
Euria (l/m)	GUZTIRA: 239l			0	0	0	0
C°altuena	ALTUENA: 16°			13	13	14	8
C°baxuena	BAXUENA: -5°			7	8	7	4
	5	6	7	8	9	10	11
Euria (l/m)	1,5	22	6	4	0	0	0
C°altuena	8	4,5	0,5	-1	-1	4	3
C°baxuena	4	0,5	-2	-2	-5	-1	-2
	12	13	14	15	16	17	18
Euria (l/m)	0	8	7	0	0	0	0
C°altuena	5	7	9	10	9	9	11
C°baxuena	-3	3	2	1	2	1	4
	19	20	21	22	23	24	25
Euria (l/m)	18	2,5	6,5	7,5	28	14	13
C°altuena	14	16	8	7	16	15	9
C°baxuena	6	0	2	3	10	6	3
	26	27	28	29	30	31	
Euria (l/m)	30	52	11	4	0	4	
C°altuena	9	6	7	10	12	16	
C°baxuena	1	2	4	7	7	11	

Haize zakarra, euria, elurra eta izotza

Benetako negu giroa izan dugu urtar- rril guztian zehar. Joandako urteko bideari eutsiz, euri asko egin du: 239 litro. Baina horrez gain, ilbeltzak elurra ere ekarri du, eta zeropeko egunak ere dezente izan ditugu egutegian. Eta euriz, elurrez eta izotzez lehendik nahikoa ez bagenuen, haizeteak (zikloi famosoak) baso eta tei- latuetan utzi zuen arrastoa.

Zerra zaharreko baskularen gainera bota zuen haizeak ondoko pinu tzarra



Eliz atzeko kale berria plazatik behera jaisteko

Eliz atzeko kale berria amaituta dago. Farolak jarrita daude eta errepidearen norabidea ere zehaztuta dago. Antxaputxutik abiatu eta auzoko bi etxeetaraino bi norantzatan ibili ahalko da. Baina eliza atzeko paretaren paretik plazara doan bide zatian goitik behera bakarrik jaitsi ahalko da. Horregatik bi seinale jarri dira dagoz- kien lekuetan: "bidearen amaiera" eta "ez pasa" seinaleak.



AEKren Korrikan parte hartzeko bilera

AEKk antolatzen duen Korrikaren 16. edizioa apirilaren 2an pasako da Zeraindik goizeko 7etan. Euskararen alde dirua eta babes biltzea helburu duen festan parte hartu nahi dutenak eta diruz lagundu nahi dutenak martxoaren 3an iluntzeko 6:30etan kultur etxean egingo den bilerara gonbidatuta daude.



Liztormendiko batzar orokorra martxoan

Urteko batzar orokorra martxoaren 14an, larunbata, egingo du Liztormendi elkarteak. Goizeko 11:30etatik aurrera, urteko gorabeherak landu eta junta berritzea egingo dituzte sozioek.